



# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Araitz Sagarna  
Itoitz Salaberria  
Xabier Zamora  
Olatz Sanchez

Enpresa sortzerako garaian, zeresan handia sortzen du bezeroak nortzuk diren jakiteak. Horregatik, ikasleak zein irakasleak hartu ditugu gogoan, hau da, gure produktua unibertsitate eta eskoletako langile eta erabiltzaileei zuzendua dago; ez da soilik ikasleentzat.

Lehenik eta behin, gure ingurua gaineratik aztertu, eta ikusi dugu eskolako erabiltzaile guztiak ez dutela erabilera aktiboa izango. Esaterako, HHko ikasleek inprimagailu zerbitzua ez lukete erabiliko. Hori dela eta, zerbitzua DBHko, batxilergoko eta unibertsitateko egoitzetan jartzea erabaki dugu. Erabiltzaile kopurua zenbatekoa den jakin ez arren, 50.000-100.000 erabiltzaile artean izatea gustatuko litzaiguke, kontuan hartuta gure sarea Euskal Herrian zabalduko dugula. Horrek ez du esan nahi etorkizunean enpresa handituko ez dugunik.



Bestalde, ezaugarri orokorrei erreparatuta, orokorrean jende gaztea izango da gure bezero. Hori dela eta haiei begira sortutako lana izango da. Hauek izango dira gure lana baloratuko dutenak, beraz garrantzitsua da beraien nahiak asetzea. Prezioak ere zeresan handia ematen du, gazteak soldata handirik ez dutelako, horregatik saiatuko gara herriko paper-dendak baino zerbitzu merkeagoa eta zuzenago ematen. Besterik gabe, erabiltzaileei begira sortutako proiektua da.

Merkatu motari dagokionez, merkatu masiboaren parte garela argi dago. Merkatu masiboa, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak, eta bai bezeroarekiko harremanak talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko beharrak eta arazoak dituzten. Elektronikaren sektorean ikus dezakegu sarritan mota honetako negozio-eredua, batez ere,

ordenagailu pertsonalen eta Smartphonen alorrean. Inprimagailuen alorra ere bertan aurkitzen da.

Gure helburua, inprimagailuak ahalik eta jende gehienei iristea izango litzateke beti ere ikasle edota irakasleei zuzenduta, partekatu dezaketen inprimagailu bat izatea baliagarria ikusten dutenentzat.